



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo

donostia
surfcity

SURF KLUSTERRA
CLUSTER DEL SURF
SURF CLUSTER



Nazioartekotzea, beste behin ere, lehentasunezko helburua izango da Surf City Donostia Klusterraren eta bere enpresen jardun-planean

2016rako aurreikusitako neurri-sortan barnebildutako proiektuetako batzuk honako hauek lirateke: enpresa-misio bat, “Ocean Living Lab-en”, hots, uretako jardueren praktika berriak esperimintatzeko eta uretako jardueren ekipamendu berriak testatzeko Europako zentroan, parte hartzea eta World Surf Cities Network sarea zabaltzea, kide berriak gehituz. Planak, Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak sustatuak, Hirira WSL txapelketa erakartzea eta nazioartekotzeko, merkaturatzeko eta enpresen marketinerako prestakuntza-ekintzak gauzatzea ere planteatzen ditu.

Surf City Donostia Klusterraren jardun-plana sektoreko eragileei aurkezteko topaketaren ondoren, **Ernesto Gasco Ekonomia Bultzatzeko, Ostalaritzako, Merkataritzako eta Turismoko Zinegotziak** gertaera hori “Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoatik Donostiako Sustapena gure sozietatearen bitartez gauzatzen ari garen apustu sektorialaren edo espezializazio adimendunaren baitan kokatzen da” azpimarratu nahi izan zuen. Surfaren sektorearen kasuan, fabrikatzaileak, ingeniariak, banatzaileak eta surf-eskolak ditugu kideen artean, hau da, hirian, surfaren alorrean, jarduten duten enpresa eta erakunde guztiak, gehituz doazen kide berriekin batera”.

Surf City Donostia Klusterrak, “Ocean Living Lab-eko” kide gisa, produktu berriak merkaturatu aurretik azken erabiltzailearekin testatzeko hirian gauzatuko diren ekintzak antolatu ahal izango ditu. Hori berrikuntzaren ekosistema deiturikoa da; bertan, **Hossegorel-etik Zarautzera** bitarteko kostako 100 km-tan dauden **30 klubek** hartzen dute parte, baita, **zortzi kirol-portuk**, EuroSIMA (Europako Surf Industrien Elkarte) eta mundu-mailako hiru enpresa liderrek ere: **Quiksilver, Pukas** eta **Tribord**.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus



Surf City Donostia KLusterraren jardun-planak ekimen-sorta aurreikusten du 2016rako. Helburuen artean honako hauek leudeke:

1- Surfeko profesionalen **enpresa-gaitasunak hobetzea**.

- **Nazioartekotzea** eta merkatu berriak irekitzea. Nazioarte-mailako enpresa-misio bat gauzatuko da; horretarako, bi leku darabiltzate gogoan: Orlando edo Munich eta nazioarteko beken programa antolatuko da.
- **Finantzaketarako** aholkularitza eta negozio berrien errentagarritasunaren azterketa. Kanpo-finantzaketen deialdiak identifikatzea aztertzen du.
- Enpresan **berrikuntza** sustatzea. Proiektu berritzaileak eta talentua itzultzeko berriazko programak martxan jartzeko laguntza barnebiltzen du.

2.- **Donostiako surfeko sektorea bistaratzea** ekitaldi desberdinak antolatuz.

- **Winter Series** 2016 txapelketa
- Surf jardunaldia Donostiako Sustapenaren **Berrikuntzaren Astean**.
- Surfing Europe proiektuaren ekitaldia eta amaierako hitzaldia.
- Beste erakundeekin elkarlanean jarduerak antolatzea, esate baterako, Surfilmfestibal-en baitan, sektoreko **material eta ehun berritzaileei** buruzko jardunaldia; edo tailerrak, hitzaldiak eta erakusketak **Aritz Aranbururen Kind Surf** GKEarekin elkarlanean.

3.- **WSL txapelketa erakartzea**.

- **World Surf League**-rekin (WSL) lanean dihardute munduko txapelketako probetako bat Donostian egiteko.

4.- **Sektorearen prestakuntza**.

- Prestakuntza-ekintzak, batik bat, hiru alorretan gauzatuko dira: nazioartekotzean, merkaturatzean eta marketinean.

5.- **Enpresa arteko elkarlana**.

- Hiriko erakundeekin eta enpresekin banakako eta taldekako bilerak egingo dira interes komunak identifikatu ahal izateko.





6.- World Surf Cities Network sarearekin jarduerak.

- Lankidetzarako estrategiak sareko hirietako enpresen artean.
- Jardunbide egokien elkartrukea.
- Atxikimendu berriak erakartzea: San Diego (AEB), Punta del Este (Uruguai) eta Ensenada (Mexiko). Egun, sare hori honako hauek osatzen dute Donostiaz gain: Durban (Hego Afrika), Ericeira (Portugal), Gold Coast (Australia), Kanaria Handiko Las Palmas (Espainia), New Plymouth (Zeelanda Berria), Newcastle (Australia), Santos (Brasil) eta Viana do Castelo (Portugal).

Komunikazio- eta sentsibilizazio-alorretan gauzatutako ekintzetatik eta kideentzako zerbitzu sektorialen eta banakakoen eskaintzatik (prestakuntza, berrikuntza, nazioartekotzea eta abar) harantzago, **Ernesto Gasco** jaunak “Donostia surfaren hiri gisa sustatzeko eta nazioartekotzeko egindako lana azpimarratu nahi izan zuen, esate baterako, **WSCN-Surfaren Hirien Nazioarteko Sarea** sortzea eta koordinatzea edota aurten **Ocean Living Lab**-ekin hasiko dugun parteneriada, lankidetzak publiko pribaturako mugaz gaindiko proiektua, non, Donostia elementu garrantzitsua izango den Agglomeration Sud Pays Basque-rekin izenpetuko dugun lankidetzak-hitzarmena dela bide”.

Surf City Donostia Klusterrak 2015ean gauzatutako jardueren artean, **ISPO**, Municheko Kirolen eta Negozioen Azokara egindako enpresa-misioa nabarmentzen da; misio horretan zazpi enpresek hartu zuten parte. Gainera, Zurriola hondartzako **Groseto Indarra** Klubeko instalazioak inauguratu ziren, Donostiako Udalak Surf City Donostia Klusterraren bitartez sustatutako obrak, surfarekin lotutako jarduerak gauzatzeko kasik 250 m²-ko instalazioekin burutu zirenak. 2015eko balantzetik azpimarratu beharreko beste alderdietako bat Klusterrera **kide berriak gehitu direla** da, hots: Lombok XXI – Distribuidora, Open Coast – Data Base, Trinity Technology – Ingenieria, Hotel Arrizul eta Surftiger Surfboards.

Egun, Surf City Donostia Klusterra tipologia anitzeko **47 enpresek**, hots, fabrikatzaileak, eskolak, dendak edo ingeniariak eta **14 taldek**, horien artean, federazioek, prestakuntza-zentroek edo zentro teknologikoez osatzen dute.

